

Datorren martxoaren 21ean ospatzen den Arraza Diskriminazioa Ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela eta, Andoingo udal-eragileek, alderdi politikoek eta hezkuntza eta gizarte-arloko ordezkariak gure ahotsa altxatzen dugu arraza-diskriminazio mota oro salatu eta irmoki gaitzesteko, baita giza eskubideen eta bizikidetzaren aurka egiten duten diskurtso, jarrera eta praktika xenofobo eta arrazistak gaitzesteko ere. Lan-prekaritateak, etxebizitza duina eskuratzeko zailtasunek eta oinarriko gizarte-eskubideen ahultzeak markatutako testuinguru batean, berresten dugu arrazakeriaren aurkako borroka bereizezina dela justizia sozialaren eta pertsona guztientzako bizi-baldintza duinen defentsatik.

Arraza-diskriminazioa ez da iraganeko arazo bat: gaur egun ere presente dago, eta egiturazko adierazpen berri eta kezagarrien bidez agertzen da. Gorroto-diskurtsoen hazkundera, arrazakeriaren normalizazioa eta zatitu, seinalatu eta baztertzen duten jarreraren ugaritzea ikusten ari gara. Dinamika horiek areagotu egiten dira desberdintasun, prekaritate eta bizi-segurtasunik gabeko testuinguruetan, egoera ahulenean dauden pertsonen seinalamendua eta bazterketa elikatuz.

Arrazakeriak gogorren jotzen ditu jada zaurgarritasun-egoeretan dauden pertsonak. Pertsona migratzaile askok lan-baldintza bidegabeak jasaten dituzte, bereziki oso prekarizatutako sektoreetan, hala nola zaintza-lanetan, ostalaritzan, eraikuntzan edo etxeko lanetan: neurrigabeko lanaldiak, soldata eskasak, ezegonkortasuna, eskubideen gabezia eta babes sozialik eza. Horri gehitzen zaio etxebizitza duina eskuratzeko bazterketa, etxebizitzetako pilaketa-egoerak, alokairu-abusuak eta zuzeneko diskriminazioak, desberdintasuna eta bizi-segurtasun eza areagotzen dituztelarik.

Bizikidetzak kohesionatu eta bidezko baten oinarri nagusi gisa, enplegu duina, etxebizitza egokia eta gizarte-eskubide osoak eskuratzeko defendatzen dugu. Arrazakeriaren aurka borrokatzeak prekaritatearen aurka borrokatzea ere badakar, eskubide eta aukera-berdintasuna bermatzea, eta pertsona bakar bat ere ez dadila diskriminatua izan bere jatorriagatik, azalaren koloreagatik edo egoera administratiboagatik. Gai horietan guztietan, botere publikoek eskubide-berdintasuna errazteko politikak egiteko betebeharra dute.

Hezkuntza gizarte-eraldaketarako ezinbesteko tresna gisa aldarrikatzen dugu. Funtsezkoa da adin goiztiarretatik hezkuntza-esparruan lan egitea. Ikastetxeak funtsezko espazioak dira aniztasuna normalizatzeko, segregazioa prebenitzeko eta bizikidetzak sustatzeko. Haurtzarotik haurrak inklusioan hezteko ardura kolektiboa da. Gaur egun Andoainen hazten diren neska-mutilek giza eskubideak, berdintasuna, justizia eta tolerantzia sustatzen dituen ingurune batean haztea bermatu behar dugu; eta aurreiritziak zalantzan jartzen, estereotipoei aurre egiten eta aniztasuna aberastasun gisa —eta ez mehatxu gisa— baloratzen irakatsiko dien ingurune bat bermatu behar da.

Andoainen, 2022tik, Udalaren Kultur Aniztasunaren Plana dago indarrean, inklusioaren alde eta arrazakeriaren aurka ekintza kolektiborako ildoak ezartzen dituena. Ildo horretan aurrerapauso ugari eman dira, eta maila instituzionalean ekintza-esparru honetan lanean jarraitzeko konpromisoa dago, bizikidetzak sustatzeko helburuarekin.

Andoain udalerrri anitza, plurala eta giza eskubideekin konprometitua da eta izango da. Aniztasun etnikoa, kulturala eta jatorrizkoa aberastasun kolektiboaren iturri eta gure bizikidetzaren oinarriko zutabea da. Horregatik, sinatzaile garen eragileak arraza-diskriminazioaren aurka modu irmo eta etengabean jarduteko konpromisoa hartzen dugu, borroka hori gure politika, programa eta praktiketan zeharka txertatuz, eta lana, etxebizitza, hezkuntza eta zerbitzu publikoak bezalako eskubideetarako sarbide unibertsala defendatuz.

Gaur, martxoaren 21ean, ez dugu data bat soilik gogoratzen: jarrera politiko eta etiko argi bat berresten dugu. Ekintza, diskurtso eta gertakari arrazista guztiak gaitzesten ditugu, eta erakunde, elkarte eta herritar gisa, errespetuaren, berdintasunaren eta bizikidetzaren defentsan paper aktiboa betetzeko konpromisoa hartzen dugu, elkarrekin Andoain hobeago, bidezkoago, inklusiboago eta arrazakeriarik gabeko baterantz aurrera eginez.

Con motivo del Día Internacional de la Eliminación de la Discriminación Racial, que se conmemora el próximo 21 de marzo, los agentes municipales, partidos políticos y representantes del ámbito educativo y social de Andoain alzamos la voz para denunciar y rechazar de forma contundente cualquier forma de discriminación racial, así como los discursos, actitudes y prácticas xenófobas y racistas que atentan contra los derechos humanos y la convivencia. En un contexto marcado por la precariedad laboral, la dificultad de acceso a una vivienda digna y el debilitamiento de derechos sociales básicos, reafirmamos que la lucha contra el racismo es inseparable de la defensa de la justicia social y de unas condiciones de vida dignas para todas las personas.

La discriminación racial no es una lacra del pasado: sigue presente y se manifiesta hoy con nuevas y preocupantes expresiones estructurales. Asistimos al crecimiento de los discursos de odio, la normalización del racismo y la proliferación de actitudes que dividen, señalan y excluyen. Estas dinámicas se ven agravadas por contextos de desigualdad, precariedad e inseguridad vital, que alimentan el señalamiento y la exclusión de quienes ya se encuentran en una posición más vulnerable.

El racismo golpea con mayor dureza a quienes ya se encuentran en situaciones de vulnerabilidad. Muchas personas migrantes sufren condiciones laborales injustas, especialmente en sectores ya precarizados como los cuidados, la hostelería, la construcción o el trabajo doméstico: jornadas abusivas, salarios insuficientes, inestabilidad, ausencia de derechos y falta de protección social. A esta realidad se suma la exclusión en el acceso a una vivienda digna, con situaciones de hacinamiento, abusos en el alquiler y discriminación directa que profundizan la desigualdad y la inseguridad vital.

Defendemos el acceso a un empleo digno, a una vivienda adecuada y a derechos sociales plenos como pilares fundamentales para una convivencia justa y cohesionada. Combatir el racismo implica también combatir la precariedad, garantizar la igualdad de derechos y oportunidades, y asegurar que ninguna persona sea discriminada por su origen, color de piel o situación administrativa. En todas estas cuestiones, los poderes públicos tienen el deber de hacer políticas que faciliten el acceso a la igualdad de derechos en todas estas cuestiones.

Reivindicamos la educación como una herramienta imprescindible de transformación social. Es fundamental trabajar desde edades tempranas en el ámbito educativo. Los centros escolares son espacios clave para normalizar la diversidad, prevenir la segregación y fomentar la convivencia. Educar en la inclusión desde la infancia es una responsabilidad colectiva. Garantizar que las niñas y niños que hoy crecen en Andoain lo hagan en un entorno que promueva los derechos humanos, la igualdad, la justicia y la tolerancia, y que les enseñe a cuestionar prejuicios, a combatir estereotipos y a valorar la diversidad como una riqueza, no como una amenaza.

En Andoain desde 2022, existe un Plan de Diversidad Cultural municipal que marca las directrices para la acción colectiva hacia la inclusión y contra el racismo. Se han hecho muchos avances en este sentido, y a nivel institucional, existe el compromiso de seguir trabajando en este marco de acción para la convivencia.

Andoain es y seguirá siendo un municipio diverso, plural y comprometido con los derechos humanos. La diversidad étnica, cultural y de origen es una fuente de enriquecimiento colectivo y un pilar fundamental de nuestra convivencia. Por ello, las entidades firmantes asumimos el compromiso de actuar de manera firme y constante contra la discriminación racial, incorporando esta lucha de forma transversal en nuestras políticas, programas y prácticas, y defendiendo el acceso universal a derechos como el trabajo, la vivienda, la educación y los servicios públicos.

Hoy, 21 de marzo, no solo recordamos una fecha: reafirmamos una posición política y ética clara. Condenamos todos los actos, discursos e incidentes racistas y nos comprometemos, como instituciones, organizaciones y ciudadanía, a desempeñar un papel activo en la defensa del respeto, la igualdad y la convivencia, avanzando juntas y juntos hacia una Andoain mejor; más justa, inclusiva y libre de racismo.